

Diktadura frankista (1959-1975)
Desarrollismo industrial
eta bere ondorioak

7. gaia

Garapen ekonomikoa eta gizarte-eraldaketa

1960ko hamarkadan
desarrollismo garaia hasi zen.



Opus Deiko teknokratek
bultzatutako Egonkortze eta
Garapen Planek hazkunde
ekonomikoa eta gizarte
aldaketak bultzatu zituzten.



Garapen ekonomikoa eta gizarte-eraldaketa



<https://www.youtube.com/watch?v=G5uyKLNi3h8>

Garapen ekonomikoa eta gizarte-eraldaketa

Ondorio negatiboak

- Kontsumoak eta produkzioak behera egin zuten.
- Soldatak jaitsi ziren eta langabeziak gora egin zuen.
- Espainiar askok Europara emigratu zuten.

Ondorio positiboak

- Emigrazioa turismoarekin orekatzen zen (prezio merkeek erakarrita).
- Inportazioak ordaintzeko behar ziren dibisak eskuratu ziren.
- Langabeziaren arazoa arintzen lortu zuten.

Garapen ekonomikoa eta gizarte-eraldaketa

1964 eta 1973 urteen artean Garapen Planak hazkunde eta nazioartekotze prozesua osatu zuten, hurrengo helburuak izanik:

- Azpiegitura-gabezia konpontzea.
- Industrializazio-maila txikieneko eremuen alde egitea.
- Produktu nazionala bultzatzea.
- Guztientzako lana egotea.
- Errenta hobeto banatzea.
- Munduko ekonomian gehiago sartzea.

Garapen ekonomikoa eta gizarte-eraldaketa

Denak ez ziren bete, baina Espainiak oparoaldi ekonomiko bat izan zuen, beste faktore batzuekin gertatu zena:

Nazioartean hazkunde garaia eman zen.


Espainiarekiko atzerritarren inbertsioak lan kostu txikia zela eta.

Turismoa.


Atzerrira joandako emigranteek bidaltzen zituzten dibisak.

LA LLEGADA DE CAPITAL DURANTE EL DESARROLLISMO


INVERSION DE CAPITAL EXTRANJERO
(millones de pesetas constantes de 1960)



SALDO TURÍSTICO EN LA BALANZA DE PAGOS
(millones de dólares)



SALDO POR REMESAS DE EMIGRANTES
(millones de dólares)



Garapen ekonomikoa eta gizarte-eraldaketa

Faktore hauek ordainketa balantza orekatu zuten, espainiarrei teknologia berriak eta kapital-ondasunak erosteko aukera emanez.

Herri lanak bultzatu ziren, errepideak, urtegiak, etab. eraiki baitziren.

Hala ere, hazkunde "miragarri" hau desorekatua izan zen, eskualde eta sektoreen arteko desorekak eta arazoak sortuz.

Garapen ekonomikoa eta gizarte-eraldaketa

60ko eta 70eko hamarkadetan Espainiako ekonomiak izan zuen hazkundeak aldaketak ekarri zituen gizartean.

Landako gizarte tradizionala gizarte industrial, hiritar eta kontsumoan murgildu zen, aldaketa sozikultural esanguratsuak izaten.

Garapen ekonomikoa eta gizarte-eraldaketa

Landa exodoa

- Industria garapena ez zen lurralde guztietan gauzatu, desorekak ekarriz.
- Biztanleria nekazaritza guneetatik industria guneetara edo Europara joan zen.

Bizi mailaren igoera eta Espainia kontsumo gizartean sartzea

- Espainiarrak dirua izaten hasi ziren kontsumo-ondasunak erosteko.
- Aisialdirako eta kulturarekin lotutako jarduerak egiten zituzten.

Zerbitzu publikoen hobekuntza

- Ikasleen kopurua handitu, eta bizi kalitatea zein bizi itzaropena igo ziren hezkuntza eta osasun arloan eman ziren hobekuntzengatik.


Pentsamolde aldaketak

- Espainiako gizartea zabalagoa, dinamikoagoa eta laikoagoa bihurtu zen hainbat faktoreren ondorioz.
- Emakumeak gizartean rol gehiago betetzen hasi ziren.



LA EDUCACIÓN DURANTE EL FRANQUISMO

Evolución de las tasas educativas
(porcentajes de cada grupo de población)





Garapen ekonomikoa eta gizarte-eraldaketa



<https://www.youtube.com/watch?v=RJHJ9QeVydI>

Eliteak eta erregimen frankistaren euskarri instituzionalak

Armada

- Administrazioako eta gobernuko kargu garrantzitsuak betetzeaz gain, erregimenaren izaera autoritarioa bermatzen zuten.

FET y de las JONS

- Ideologia zabaldu eta gizartearen kontrol politikoa antolatu zuen.

Eliza Katolikoa

- Frankismoaren moraltasuna erakusteaz gain, hezkuntza eta gizarte-balioak kontrolatzen zituen.

Oligarkia ekonomikoak

- Diktadura babestu zuten, haien interes ekonomikoak bermatuta ikusten baitzuten.

Eliteak eta erregimen frankistaren euskarri instituzionalak

Erregimenak alderdi bakarra eta Sindikatu Bertikala ezarri zituen langile eta enpresariak estatuaren kontrolpean antolatzeko.

Gorte frankistak aholkularitza-organo hutsak izan ziren, benetako botere legegilerik gabe.



CENTRAL
NACIONAL-SINDICALISTA

DELEGACIÓN SINDICAL PROVINCIAL
BURGOS

Sindicato ~~AGRUPACION AGRICULTUR~~
Sección ~~Labradores.~~

Firma del Afiliado,
Ubaldo Susilla

Carnet núm. 33.778

Núm. local 22.

Pueblo HUMADA.

Nombre Ubaldo

Apellidos SUSILLA Cueva

Fecha de ingreso 12-39.

Burgos, 26 de Febrero de 1940
El Delegado Sindical Provincial.

Huella Dactilar
(dedo pulgar de la mano izquierda) o fotografía.

Sello de la Delegación Local.





Eliteak eta erregimen frankistaren euskarri instituzionalak

1950eko hamarkadaren amaieran, teknokratak ekonomiaren eta politikaren esparruan eragina izan zuten.

1957an Opus Deik Egonkortze Plan bat jarri zuen indarrean, erregimena berritzeko eta liberalizatzeko asmoarekin, baina immobilistak horren aurka agertu ziren.

Eliteak eta erregimen frankistaren euskarri instituzionalak

Francok bi sektore horien arteko orekari eusten saiatu zen eta lege hauek promulgatu zituen:

Mugimendu Nazionalaren printzipioei buruzko Legea (1958): erregimenaren baloreak indartzen zituen.

Orden Publikoaren Legea (1966): adierazpen askatasuna apur bat zabaldu zen, baina isunak eta kartzelatzeak egoten jarraitu ziren.

Estatuaren Lege Organikoa (1967): Estatuburu eta Gobernuako presidente karguen banaketa.

Eliteak eta erregimen frankistaren euskarri instituzionalak

Aldaketa garrantzitsuenak 1969an etorri ziren.

Francok bere ordezeko Juan Carlos Borboikoa errege izendatu zuen erregimena mantentzeko konpromisoarekin.

Francok Carrero Blanco almirantea presidente-orde izendatu zuen.

Eliteak eta erregimen frankistaren euskarri instituzionalak



<https://www.youtube.com/watch?v=Aa8PiF3Ph6w>

Erregimenaren finkapenari emandako erantzuna: babesia, indiferentzia eta oposizioa

1960ko hamarkadan behin betiko legitimatu zen erregimen frankista nazioartean.

1962tik aurrera EEEEn sartzeko eskaerak egin ziren, guztiak ukatuak izanik.

1970ean Lehentasunezko Akordioa sinatu zuten, merkataritza errazten zuena.


Erregimenaren finkapenari emandako erantzuna: babesia, indiferentzia eta oposizioa

1967an nazioartean arrakasta handia lortu zuten Gibraltar zela eta, Britainia Handiarekin zuen istiluan NBEk deskolonizazioaren aldeko argumentuen alde eginez.

Gibraltarreko arazoa nazioartera zabaltzean, Espainiak Afrikan zituen kolonizazio-hondarrak aztertu ziren:

- 1968an Ekuatore Ginearen independentzia aldarrikatu zen.
- 1969an Ifni Marokoren eskuetan utzi zen.
- 1975ean Sahara Maroko eta Mauritaniaren eskuetan utzi zituen (Ibilaldi Berdea), baina, trukean, Ceuta eta Melillaren jabetza bermatu zen.

Marcha Verde, 1975



Erregimenaren finkapenari emandako erantzuna: babesia, indiferentzia eta oposizioa

1960ko hamarkadan emandako aldaketa sozialen ondorioz, erregimenaren kontrako jarrera eta protestak ugartu ziren, oposizioa indartuz.



1962ko apirilean oposizioko indar ia guztiek Europako Mugimenduak München egindako kongresuan parte hartu zuten, Espainiako sistema antidemokratikoa salatzeko.



Frankistek sinatzaileei traidore, Espainiaren etsai eta masoien zein marxisten lagun izatea leporatu zitzaizkien.

El contubernio de la traición a España

Reunión secreta en Munich de elementos de diversas tendencias aliados a comunistas y socialistas

PARIS, 8. — En crónica telefónica, fechada en Munich, «France Soir» publica una información de Marcel Niedergang, en la que queda al descubierto lo que puede llamar-

se contubernio de la traición a España. Había mandado a Munich unos treinta representantes encabezados por el señor Llopis, jefe del Partido Socialista español, refugiado en Francia.

Todos los delegados asistieron con

emoción al primer apretón de manos entre Llopis, el socialista, y Gil Robles, el monárquico. No se habían visto desde 1946.

El cronista lo describe así: Llopis, pequeño, frágil, con pelo gris,



Erregimenaren finkapenari emandako erantzuna: babesia, indiferentzia eta oposizioa

Ekonomiaren garapenaren ondorioz, 1967tik langileen mugimendua politizatu zen, eta greba eta manifestazio ugariara deitu zuen.

Ikasleen mugimenduek erradikalizatu ziren eta 1964tik SEUk indarra galdu zuen.

Eliza Katolikoren sektore baten diktaduraren aurkako jarrera zabaldu zen, protestetan parte hartuz.






Erregimenaren finkapenari emandako erantzuna: babesia, indiferentzia eta oposizioa

1959ko uztailean ETA jaio zen, bere burua askatasun nazionalerako mugimendu iraultzaile gisa definituz.

Borroka armatuari ekin zion diktadura frankistaren opresioari aurre egiteko helburuz.

ETA erregimenaren arazo nagusia bihurtu zen eta frankismoak Euskal Herria osoari eragin zion errepresio gogor hori.



Erregimenaren finkapenari emandako erantzuna: babesa, indiferentzia eta oposizioa

PSOE, UGT, CNT eta PCE berreraikitzen joan ziren Espainian, azkenengoa alderdirik indartsuena eta antolatuen izanik.

Erregimenak gogor eraso zuen atxiloketa, kartzelaratze eta heriotza zigorrekin.

1969tik aurrera oposizioak herrialde barnean jardutea eta desadostasunak gaitztea erabaki zuen.

Frankismo berantiarraren krisia

1969tik 1974ra, agerian geratu zen erregimenaren ezegonkortasuna, barne-krisiagatik eta haren barruan bi joera desberdin agertu zirelako.

Irekitasun aldekoak,
liberalagoak zirenak (Fraga,
Calvo Sotelo, etab.)

Immobilistak, eskuin
muturrekoak zirenak (Carrero
Blanco, Arias Navarro, etab.)









Frankismo berantiarraren krisia

1973an Carrero Blanco gobernuko presidente hautatzeak sektore immobilista indartsuena zela erakutsi zuen.

Honen asmoa erreformarik ez egitea eta oposizioa gogor zapaltzea zen.

Dena den, ETAk erregimenaren planak aldatu zituen, 1973ko abenduaren 20n Madrilen Odro operazioan Carrero Blanco hil zuenean.



Frankismo berantiarraren krisia

Oposizioaren jarduera politikoa indartu egin zen eta talde armatuak ugartu ziren (FRAP eta GRAPO).



Gobernuaren errepresioa gogortu eta 1975eko abuztuan Lege Antiterrorista onartu zen, herriotza-zigorra ezartzen zuena.

Frankismo berantiarraren krisia

Espainiak 60ko hamarkadan izandako hazkunde ekonomikoak oinarri ahulak agerian geratu ziren 1973an nazioarteko petrolioaren krisia lehertu zenenan, Espainian eragin handia izan zuena.

Emigrazioa
ahuldu zen.

Lanpostuak
murriztu eta
langabezia hazi
zen.

Inflazioa hazi
zen.

Turismoa jaitsi
zen, prezioak
ez baitziren
lehen bezain
merkeak.

Kanpo
inbertsioek
behera egin
zuten.

Esportazioak
murriztu ziren.

Errepresio politiko eta soziala

1959tik aurrera frankismoaren errepresio politiko eta soziala forma aldaketa izan zuen, baina ez funtsezko izaera.

Egonkortze Planak (1959) ekonomiaren modernizazioa eta nazioarteko integrazioa ekarri zituen arren, sistema politiko itxia eta autoritarioa izaten jarraitu zuen.

Errepresio politiko eta soziala

01

1963an Ordena Publikoko Auzitegia sortu zen delitu politikoak epaitzeko.

02

Oposizioko militante, sindikalista eta ikasleen aurkako auziak bideratu zituen.

03

Gobernuak salbuespen-egoerak ezarri zituen langile mugimenduaren grebei aurre egiteko.

04

Ikasle mugimenduen aurkako neurriak hartu zituen (kanporatzeak eta poliziaren esku-hartzeak).



Errepresio politiko eta soziala

Euskal Herrian eta Katalunian, errepresio politikoak eta kulturalak jarraipena izan zuen.

Euskara eta katalanaren erabilera publikoa mugatua egon zen.

Oposizio abertzalea segurtasun gisa tratatu zen.

ETAren jardueraren gorakadak errepresioa areagotu zuen (1970eko Burgosko epaiketak).

Errepresio politiko eta soziala



<https://www.youtube.com/watch?v=e7YE2rDinFw>

Errepresio politiko eta soziala

1973an Carrero
Blancoren
atentatuak krisi
politikoa
sakondu zuen.

Erregimenak
errepresioa
gogortu zuen
diktaduraren
azkenengo
urteetan.

Neurri
errepresiboek
ez zuten
oposizio sozial
eta politikoa
desagerrarazi.

Mobilizazioen
hedapenak eta
nazioarteko
isolamenduak
diktaduraren
agorpena
suposatu zuen.

1975ean
Francoren
heriotzarekin
amaitu zen
diktadura.

